

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Felipe jaunak lore gorrien koroa jarri du Leiren, Nafarroako lehen erregeen hilobian

Barcina Lehendakariak instituzioen opari sinbolikoa eman dio monasterioari bertako gurtzari eusteko

Miércoles, 06 de junio de 2012

Antonio Lopezi Vianako Printzea Saria eman ondoren, monasterioan bertan Nafarroako Erregeei egin diete omenaldia.

Ekitaldia 12:15 inguruan hasi da, absideen plazan, Monasterioaren atearen ondoan. Kanpai-hotsak hasi direnean, segizioa osatu dute hauek: eskaintza egiteko lore-koroa zeramaten aguaziltxoak,

tenpluan gurtzari eusteko opari sinbolikoa zuen zilarrezko kutxatxo zeraman giltzaria, arma erregea eta mazolariak, eta U itxuran jarritako taldea, Nafarroako Gobernuo kideek, Foru Komunitateko eta Parlamentuko lehendakariak, eta Asturias eta Vianako printze-printzesa berorren gorentasunek osatutakoa.

Jarraigoa Monasterioaren barrutiaren kanpoko galtzadan zehar ibili da Speciosa atarira iritsi arte. Tronpeta eta atabalen bandak Erresuman sartzeko martxa jo du, segizioa ibilbidean zehar zihuan bitartean. Speciosa atearen aurrean, segizioaren argazki bat egin dute. Atarian, abade mitradunak Felipe eta Letizia jaun-andreak agurtu ditu eta ur bedeinkatua eskaini die.

Abade-elizaren barruan, organoan Espainiako ereserkia entzuten zelarik, Felipe jaunak eta Letizia andreak haien lekuak hartu dituzte, presbiterioaren ondoan, eta handik jarraitu dute ospakizun liturgikoa. Francisco Pérez González Iruñeko artzapezpiku eta Tuterako gotzaina izan da ospakizunaren burua, eta monasterioko komunitate beneditarreko abadeak eta apaizek parte hartu dute harekin batera.

Ekitaldiko musikaz monasterioko fraideen korua eta Bruno Jimenezek zuzentzen duen Zangozako Coral Nora abesbatzakoak arduratu dira.

Iruñeko artzapezpikuak, eserita eskaini duen sermoian, esan du Leireko monasterioa Nafarroako erregeak gogoratu eta haien alde otoitz egiteko giro egokia dela, izan ere, "bere historia gogoratu eta ospatzen duen herria bizirik dagoen eta etorkizuna duen herria da", gehitu du.



Gobernuo kideak eta Parlamentuko lehendakaria printze-printzesekin paratu dira "speciosa" deritzon atarian.

Eskaintzaren unean, Nafarroako Lehendakaria nabearen lehen ilaratik presbiterioaren erdialderaino joan da eta, han, abade mitradunari eman dio bozketetan antzinako Nafarroako Gorteen erabiltzen zituzten zilarrezko kutxatxoetako bat zuen erretilua. Kutxatxo horretan egon da instituzioek monasterioaren gurtzari eusteko eman duten opari sinbolikoa.

Meza amaitzean, Asturias eta Vianako printze-printzesa berorren gorentasunak, Barcina Lehendakariak eta monasterioko apaizak lagunduta, Nafarroako lehen Erregeen hilobira joan dira. Erregeen gorpuzkiak metalezko apaingarriak dituen egurrezko kutxa neogotiko batean daude gordeta, tenpluaren iparraldeko horman. Antza denez, kutxa horretan Iruñeko erresumako lehen erregeen gorpuzkiak daude. Erresuma hura izan zen Nafarroako erresumaren aitzindaria. Erregeen artean hauek daude: Eneko Aritza (Iruñeko lehen erregea, IX. mendea), Gartzia I.a Eneko (IX. mendea), Fortun Gartzia I.a (Iñigotarren dinastiako azken erregea, IX. mendea), Antso I.a Gartzez (X. mendea), Gartzia I.a Nafarroakoa (X. mendea) eta Antso II.a Gartzez Abarka (X. mendea).


Ondoren, Felipe jaunak gaztelaniaz "Felipe eta Letizia, Asturias eta Vianako printze-printzesak" zioen lore gorrien koroa jarri dute.

Ospakizun erlijiosoa amaitu ondoren, Felipe jauna eta Letizia andrea monasterioko bisiten aretora sartu dira, eta han Antonio López eta senideekin hitz egin dute pribatuan. Horren ostean, Felipe jauna eta Letizia andrea monasterioko klaustrora sartu dira; han ekitaldiko agintari eta gonbidatuekin elkartu dira eta janurrekoa egin dute haiekin hitz egin duten bitartean.



Printze-printzesak, agintari nagusiak, Antonio López eta artzapezpikua eta Leireko komunitateko kideak.

Galería de fotos



Errege Gorentasunak agintariekin.



Errege Gorentasunak Nafarroako lehen Erregeen hilobiaren aurrean.



Felipe Printzea lore gorrien koroa jarri du Nafarroako lehen Erregeen hilobian.



Errege Gorentasunak elizkizunaren buru izan dira.